

HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUAREN OHARRA

Aldaketa Aiako hondakin handien bilketan zerbitzuan

Abuztutik aurrera, aiarrek astelehenetan 20:00etatik 22:00etara utzi beharko dituzte hondakin handiak edukiontzien eremuetan

Nahi izanez gero, erabiltzaileek garbiguneetara ere eraman ditzakete etxeke tresna elektrikoak eta altzariak

Herriz herri, asteko egun zehatz batean utzi behar izaten dira hondakin handiak (altzariak, etxeke tresna elektrikoak, aparailu elektronikoak...) edukiontzien eremuetan; hain zuzen ere, herri bakoitzari dagokion bilketa egunaren bezperan.

Aian aldaketa izango da hondakin handien bilketa zerbitzuan. Orain arte, Aian igandetan atera behar izaten ziren etxeke tresna elektrikoak eta altzariak. Abuztutik aurrera, ordea, aiarrek astelehenetan atera beharko dituzte hondakin handiak edukiontzien eremuetara. Orain arte bezala, horretarako ordutegia 20:00etatik 22:00etara artekoa izango da.

Garbiguneen abuztuko ordutegia

Hondakin handi gisa hartzen dira etxebizitza berritu edo aldatzearen ondorioz herritarrek baztertzen dituzten etxeke altzari eta ekipamenduak:

- Altzariak
- Koltxoiak
- Tamaina handiko bestelako traste erabilezinak

Nahi izanez gero, erabiltzaileek garbiguneetara ere eraman ditzakete hondakin horiek guztiak.

Abuztuan, astelehenetik ostiralera 08:30etik 13:30era bitartean eta larunbatetan 10:00etatik 12:30era egongo dira zabalik eskualdeko hiru garbigune-zerbitzuak.